



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2010-09-09

VIII. URTEA 2.069. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Herritar zein agintari ugari bildu zen atzokoan Bedaion Abaetxeren inaugurazio ekitaldian. A. IMAZ

## INAUGURATU DUTE ABAETXE TABERNA JATETXEA

**JAIK** Elduain eta Lizartzako festek Zizurkilgo Elbarrena eta Bedaiokoei pasa diete lekukoa; Alkizan bigarren asteburua dute aurretik **4-5**

## Euskal dantzekin gozatzeko aukera, etzi

**LEITZA** Euskal Dantzarren Eguna ospatuko dute 17:00etatik aurrera; ekitaldi nagusia 19:00etan izango da herriko plazan **7**

## 30 postu bilduko dira Elikagaien XV. Azoka Berezian

**VILLABONA** Herriko plazan izan ordez, aurtengoan Txermingo Ikastolan egingo dute; Isats Gisatu Lehiaketa ere egingo dute **3**

Datorren irailaren 11n ospatuko den "Bonberena Sutan" jaialdirako bi sarrera zozkatuko ditugu gure harpidedunen artean

sarrerak eskuratzeko deitu  
**943-65 56 95** telefono zenbakira



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**  
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Lanunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behean • 48100 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31860 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

|                       |                      |
|-----------------------|----------------------|
| • Izen-abizenak:      | • N A:               |
| • Lanbidea:           | • Jaioteguna:        |
| • Helbidea:           | • Herria:            |
| • P.K.:               | • Tel.:              |
| • Posta elektronikoa: |                      |
| • Kontu zenbakia:     | <input type="text"/> |

Aberriaren 1. eta 15.1999. Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritako eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala ere, nahiz izanez gero, idatzi behitako honetara: TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 behean • 48100 Tolosa, edo harpidetza ghitza@hitza.info

# Intxurre elkarteko talde nagusiak maila estreinatuko du igandean

**Alegia** » Euskalduna taldearen aurka jokatu du, 16:00etan eta etxean, Lurraldeko Preferente mailan.

## ERREDAKZIOA

Asteburu honetan hasiko du denboraldi berria Intxurre futbol elkarteko talde nagusiak. Mailaberri batean egingo du, gainera: lurraldeko preferentean. Iaz igoera fasean laugarren gelditu eta gero, talde batek bere igoera postuari uko egin eta gero, aukera izan zuten Lengokoak taldearen postu hori jokatu eta lortzeko.

Lehenengo partida hori igandean izango dute Andoaingo Euskalduna taldearen aurka. 16:00etan

## Intxurrekoak maila berrian Tolosa C.F.ko bigarren taldearekin topatuko da

hasiko dute norgehiagoka Intxurreren zelaian. Aurreko denboraldiko taldea izango du Intxurrek aurtengorako. Aurretik jokatu-

ko pare bat jokalarit izuliko dira taldera eta jubenil mailatik hiruzpalau jokalarit igo dira. Beraz, aurreko denboraldiko oinarria mantentzen dute alegiarrek.

Intxurrekoak ez dira Tolosaldeko bakarrik izango Lurraldeko Preferente mailan. Bertan izango da ere Tolosa C.F.ko bigarren taldea.

Denboraldi berrira begira, alegiarrak Lerinen (Nafarroa) izan berri dira lagunarteko partida jokatu. Bertan Lerinesen aurka jokatu zuten eta denboraldiaurreko partida bakarra izan da.

## Jubenilak eta kadeteak

Intxurreko jubenilek eta kadeteek hurrengo asteburuan hasiko dute denboraldia. Talde hauetan parte hartzeko izena eman daitekeela azaldu dute Intxurrekoek.

Jubenilen taldean aldaketak daude. Orain arte Joxean Otaño aritu da entrenatzaile bezala, baina aurtengo denboraldian, lan kontuak dirala-eta, beste zeregin batzuk izango ditu. Atezainen presatzaile izango da eta talde guztietan laguntzen ariko da. Jubenilen taldeko entrenatzaile bezala Iñaki Iriartek hartuko du lekukoa.



Intxurreko eta Lerines taldeko jokalariek lagunartekoa jokatu zuten. PATXI RENOBALES



Intxurrek Lerinesen aurka jokatu du denboraldiaurreko partida bakarra. PATXI RENOBALES

# Txintxarri Eguna begira jarri dira abesbatzakoak

**Alegia** » Ikasturtea hasi dute Txintxarri abesbatzakoek aste honetan; urriaren 24ean izango da Txintxarri Eguna.

## ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri abesbatzak aste honetan hasi du ikasturtea. Urrian ospatuko duen Txintxarri Eguna prestatzen hasi dira abesbatzakoak. Izan ere, aurtengo Txintxarri Eguna berezia izango da, 50. urteurreneko ospakizun handiena egingo baitu oruak

egun horretan. Urriaren 24an izango da aurtengo Txintxarri Eguna eta egun horri begira bilduko dituzte indar guztiak abesbatzakoek. Eguna horretan kontzertua eskainiko dute Txintxarri Txiki eta Txintxarrikoek. Udazkenean ere 50. urteurreneko ekitaldiekin jarraituko du abesbatzak eta urtea bukatzearrekin batera amaituko ditu ospakizunak.

Asteartetan eta ostiraletan egin ohi dituzten entseguak gaueko 21:00etatik aurrera. Garbiñe Orbeongo alegiarrak zuzentzen du ahots nahasietako helduen korua, 40 lagunez osatua. Era guztietako



Txintxarri Abesbatzak eta Txintxarri Txiki Abesbatzak Alegian ekainean emandako kontzertu batean. HITZA

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu dezatela ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

### SALGAI

■ **Altzariak.** Egoera onean dauden haritzezko hainbat altzari saltzen ditut. Interesatuak deitu 628 69 88 07 edo 666 61 57 66 telefono zenbakietara.

musikalantzen dute: euskal folklorea, euskal harmonizazio modernoak, gossela, musika sakroa, habanerak, brasildarrak, eta abar. Abesbatzan kantatzeko gogoak dutenek abesbatzako norbaitekin ja-

rri beharko dute harremanetan. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak kantatzea gustuko duten pertsona guztiak, helduak, gazteak eta haurrek animatzen ditu abesbatzan parte hartzera. «Musika

eginez gozatu eta beste herrietako abesbatzekin harremanak egiteko» modua da abesbatzako kideen ustez. «Bertako musika landu eta harreman sozialak lantzeko bidea ematen duela», azaltzen dute.

# Elikagaien XV. Azoka Berezia izango da etzi

**Villabona** » 09:00etatik aurrera 30 postu inguru izango dira Txermingo Ikastolan. Isats Gisatu Lehiaketa ere izango da.

## ERREDAKZIOA

Larunbatean, 09:00etan zabalduko ditu ateak Elikagaien XV. Azoka Berezia. XV. edizioa lekuz aldatuta dator, aurten ez da herriko plazan izango baizik eta Txermingo Ikastolan. Irrintzi Elkaratek, Villabonako Udalaren laguntzarekin urtero antolatzen du Elikagaien Azoka Berezia. Lacor eta La Gula del Norte ditu laguntzaileak.

Euskal Herri osotik etorritako 30 postu inguru izango dira azokan: kontserbak, hestebeteak, frutak, gozoak, ogiak, sagardoa, txakolina, ardoa, pateak, gaztak, eztiak, piperrak, bakailaoa... denetik izango da. Elikagaiez gain, pitxien

eta labanen postuak ere izango dira. Beraz, produktu ezberdinak ikusi, dastatu eta erosteko aukera zabalago izango da Villabonan.

30 posturen artean lehiaketa izango da eta lehen hiru postuek saria jasoko dute.

Gainera, Irrintzi Elkaratek, berra bat jarriko du eta 1,50 euro ordainduta pintxo bat eta ardo edo txakolin basoa hartzeko aukera izango da.

## Isats Gisatu Lehiaketa

Elikagaien Azoka Berezia batera, Isats Gisatu Lehiaketa egingo dute. Elkarate ezberdinek parte hartuko dute lehiaketa honetan. Parte-hartzaile guztien artean, hobena aukeratuko du epaimahaiak. Behin azoka bukatuta, 14:00ak aldera, antolatzaileak, Isats Gisatuaren lehiaketan parte hartu dutenak eta postuetakoak, Irrintzi Elkartera joango dira bertan bazkaltzeko.



laz herriko plazan izan zen. Larunbatean, 30 postuak, Txermingo Ikastolan jarriko dituzte. ASIER IMAZ

# Bigarren Eskuko Azokarako materiala

**Villabona** »

Mugikortasunarekin lotutako materiala saldu nahi duenak hilak 16 baino lehen eman beharko du.

## ERREDAKZIOA

Zentuz bizi, bizikletak ibili' lelopean, Bigarren Eskuko Azokak, hasiera emango dio ekimen ezberdinek jasotzen dituen Tolosaldeko 2010eko Mugikortasun Iraunkorraren Asteari.

Irailaren 18an, 10:00etatik 13:30ak bitartean, izango da azoka Villabonako Berdura plazan. Bertan, iaz egin zen moduan, eskualdeko biztanleek mugikortasun

iraunkorrarekin lotutako produktuak saltzeko aukera izango dute: bizikletak, patineteak, mailotak, kilometro kontagailuak...

Informazio gehiago udaletako webguneetan eta 943 69 25 36 zein 689 749 439 telefonoetan eskuratu ahal izango da. Mugikortasunarekin zerikusia ez duen materialaren salmentarik ez da onartuko. Objektu edo produkturen bat saldu nahi dutenek, hilaren 16a baino lehen euren produktuak ondorengo lekuren batera eraman beharko dituzte: Aduna, Asteasu, Berastegi, Elduain, Irura, Tolosa eta Zizurkilgo Udaletxetara. Anoetako kiroldegira edo Villabonako Udaltzaingora, alde zuzenean (943 69 39 80).



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

# Kalitatezkoa

**EDARRIAK**

**ELIKAGAIAK**

**JANTZIAK**

**DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...**

**ESKULANGINTZA**

**400**

PROBETZAK

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **plaza.com**

# Zizurkilgo Elbarrenan eta Bedaion festa martxan da

**Jaiek** Alkizan bigarren asteburuari begira jarri diren honetan, Lizartzan eta Elduainen atzo amaitu ziren herriko jaiek.

**ASERIMAZ**  
 Zizurkilgo Elbarrenan eta Bedaion atzo hasi ziren jaiek; Alkizan oraindik bada zenbaita eta Lizartzan eta Elduainen beharnez egiteko gaitia irabiatu da.

**Suziria eta jaiek bete-betean**  
 Bedaion ekitaldi berezi batekin hasi dituzte aurtengo jaiek. Abate txer jatekoa inauguratu zuten. Marfikortea eta Zeberio bertolariak

eta Leja eta Landakanda trikititariak ekitaldi berezi honetan izan ziren.  
 Zizurkilgo Elbarrenan III. Kroso mistoak eman ziren. Jaiei hasiera, Ondoren suziria eta Melokotoiaren aurkezpena etorri ziren.  
 Alkizarrak azkenik, jaiak jartzen dute. Astearen hartu ostean, bigarren asteburua berotzen hasi ziren atzokoan. Toka Txapelketan izan zen horren adibidea.



Zizurkilgo Elbarrenan III. Kroso Mistoaren hasi ziren jaiek. A. MAZ

» EGITARAUAK

- ALKIZA**  
**Bihar, irailak 10**  
 • **17:00.** Patin eta Pabon pallazotak.  
 • **18:00.** Trikopetea mozoortuturik.  
 • **21:00.** Barikotea.  
 • **23:00.** Karaokea.  
 • **Ondoren.** Erromeria Ingo al deuz taldearekin.  
**Etzi, irailak 11**  
 • **10:30.** Bizkleta lasterketa haurrentzat.  
 • **17:00.** Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalen oromenez, herriaren arteko Herri Kiroi saioa egingo dute.  
 • **18:00.** Sagardo dastaketa.  
 • **23:00.** Bertolariak: X. Lizaso, A. Egarte, A. Anzures, M. Lujanbio, A.M. Poñagarrikano eta I. Zubeldia. Gai-jartzailea: A. Agirre.  
 • **Ondoren.** Berberna Kantuko taldearekin.  
**ELDUAIN**  
**Bihar, irailak 10**  
 • **11:00.** Meza nagusia Santa Ka-

- talina elizan. Ondoren, hamaitakoa Kontzejua tabernan.  
 • **17:00.** Antzerki herriko umeen eskutik. Ondoren, Falkoneria (C. Cereña) ikuskizuna. Eta festei amaiera emateko, Gorrin eta bere animalia izango dira.  
**BEDAIO**  
**Bihar, irailak 10**  
 • **20:00.** Zafagi ardo ospatuko dute (Edaria elkartek jarriko duela azaldu dute).  
 • **22:00.** Erromeria izango da Elustondo Anai-areba trikitilarienik. Goizaldera indarrak hartzeko barabururi zopa eta bokolatesa izango dute.  
**Etzi, irailak 11**  
 • **16:00.** Ume-jaiak. Jokoak, buruhandak eta bokolateda.  
 • **21:00.** Herri afari nagusia.  
 • **23:00.** Antsozaj eta Larrañaga eta ber eta Ababer trikitilarien erromeria, ordu bikiak bitarte. Goizaldera indarrak hartzeko barabururi zopa eta bokolatesa izango da.  
**ZIZURKIL**  
**Gau, irailak 9**  
 • **11:30.** Meza nagusia.  
 • **12:00.** Herriko haurren euskal dantza ikuskizuna.  
 • **12:00.** Jubilatuen jokoak: toka eta gela.  
 • **14:00.** Jubilatuen bazkaria.  
 • **17:00.** Superjaki haurrentzako

- Irailak 12, igandea**  
 • **11:00.** Meza nagusia. Ondoren, hamaitakoa.  
 • **13:00.** Bedaiko XXI. Txirindulari iguera (federatu gabekoentzatz).  
 • **18:00.** Herri kirol jaialdia. Herri-jostizak: Aimar Irigoien, Aizkolariak, Larretxea eta Floren Nazabal. Ondoren Bedaiozarrak Bedaiko Inguurteko dantzarako dute. Jarañain, Xanti-Katxo trikitilariak.  
 • **21:00.** Aferia (Mondeljak eta ardi-gistaua) Artubi Elkartearen Trikitilari ez alaturik.  
 • **00:00.** Jaiet amaiera emateko suziria botako dute.  
**ZIZURKIL**  
**Gau, irailak 9**  
 • **11:30.** Meza nagusia.  
 • **12:00.** Herriko haurren euskal dantza ikuskizuna.  
 • **12:00.** Jubilatuen jokoak: toka eta gela.  
 • **14:00.** Jubilatuen bazkaria.  
 • **17:00.** Superjaki haurrentzako

- ikuskizuna. Ondoren umeentzako merienda eta buruhandak.  
 • **20:00.** Kantuak. Herriarek euskal kantuz alaluko dute herria. Tartean, partehartzaileek, zenbait pintxo dastatu eta barrikotea egin ondoren, Kantuak erekin jarraituko dute.  
 • **22:30.** Txan magoa.  
**Bihar, irailak 10**  
 • **11:30.** Haur jolasak. Ondoren, buruhandak.  
 • **14:00.** Gaste bazkaria plazan izango da eta ondoren, Gaste jokoak egingo dituzte.  
 • **19:00.** Gorrinen abereak, Aurrisan.  
 • **19:00.** Zozongo batukada ibiliko da.  
 • **23:00.** Kontzertuak: Zaunk, Che Sudaka eta Deskontrol.  
**Etzi, irailak 11**  
 • **11:00.** Jokalanda haurrentzako jolasak. Ondoren, buruhandak egingo dira.  
 • **11:30.** Antzerki bakur lehiaketa Danera futbol zelain.

- **13:00.** Lorontzi erakusketa eta lehiaketa.  
 • **14:00.** Herri bazkaria.  
 • **17:00.** Busen arteko pentatloia. Koadriek bost jokotan parte hartuko dute, jokoetako bat astokari izango da.  
 • **19:00.** Asto karrera.  
 • **00:00.** Trakets berberna taldea goizaldera arte. Mozoortu gaua izango da.  
 • **07:30.** Diana trikitilarien.  
**Irailak 12, igandea**  
 • **11:30.** Sardinak eta sagardo dastaketa Urkamendi elkartearen eskutik.  
 • **13:00.** Motozerraren egurgari formak emanez erakustaldia.  
 • **19:00.** Herriaren dantza eta Melokotoiaren iguera. Honek nartetik herriaren zehar kalejari bilikoa dira.  
 • **20:00.** Berberna saioa plazan: Anjel Mari Poñagarrikano, Altor Mendiluze, Suzelai Kolina, Xabier Silbeira, Iker Zubeldia eta Amaia Agirre. Gai-jartzailea: Jon Zaldua.  
 • **23:00.** DJ Bui plazan.



Lizartzan egazte bazkaria ospatu zuten atzokoan. A. MAZ



## Bedaion jate txer berria ireki dute

**JAIK** Amabigarraren eta Jubilatuen Egunaren atsek egiteko zabaldu zuten Bedaio. Atzoko eguna handia izan zen azotarrentzat. Bedaio lehen taberna jate txeraren atak zabaldu baitzuten. Abate txerren inaugurazio ekitaldian Tolosako Udala ondestariek bertan izan ziren. Jokin Biddaratz alkatea buru zutela.

Bedaioarren ematen, «bide luzea eta gogorra» izan arren, pozik egoteko eguna zen atzokoa. Abate txerretara aurkitzen den erakina 2008. urtean eskuratu zuten Tolosako Udalak, bizilagunen eskarian jararmon egin ostean. Onduz geroztik, berri igarri bota ondoren, ospakizun honen zain zeuden herriarrak. A. MAZ



Elduaingo Antzerki Taldeak emanaldia eskaini zuen azken egunean. A. MAZ



Alkizan helduak Toka Txapelketan ibili ziren atzokoan. A. MAZ

www.euskaherriko pLaza.com

MER KE AL DJ AI

Lehen: 31,93 €  
 Oraint: 25,22 €

Lehen: 66,12 €  
 Oraint: 51,9 €

Lehen: 28,48 €  
 Oraint: 22,78 €

Lehen: 57,17 €  
 Oraint: 45,74 €

Lehen: 28,48 €  
 Oraint: 22,78 €

20 €

20 €

20 €

2 elastiko 35 €

TTAK

**ARRASTOIA**  
 Jai Zoriontsuak  
 Izan!

**GANAJE**  
 EKIN  
 GANAJE

**Ogi-Zurbi**  
 Ohiakdegia  
 Gastelegia • Kaitlegia  
 Ogi bereziak eta artisau emaitza guztiak  
 Belduaingo hitza: 1.0 - Zuzenki - 942 00 10 00

**CATALAN AZULEJOAK**  
 Porcelana • Gres  
 Pared • Muebles  
 943 004 265 • 628 734 222

## Eskualdeko irabazleak Ordiziako azoka bereziak

### ERREDAKZIOA

Egun borobila izan zuten atzokoa Ordizian. Euskal Jaiak ari dira ospatzen eta horren baitan, atzokoan, azoka berezia izan zuten egun guztian zehar. Ibiltzeko eguraldi-giro bikaina izan zen nagusi, eta jendetza «bere tamainan» zegoen, ehunka postu, salmahai eta produktu ikusten.

Aparteko feriak, hala ere, badu bestelako erakargaririk ere, izan ere, urteroko moduan, lehiaketa ugari egin baitziren, eta sarietako batzuk Tolosaldera ekarri zituzten, gainera.

Batetik, fruta lehiaketa egiten dute, baina maila honetan ez zen eskualdeko saridunik izan. Barazki lehiaketa, aldiz, hirugarren saria Anoetako Goiz Eguzkiko Dani Oiarzabalek eskuratu zuen. Lehe- na, berriz, Martuteneko Olatzoko Joxe Manuel Zabalegik irabazi zuen eta bigarren Elgoibarko Txillarrek Pello Rubiok.

Era berean, asteazkeneroko azokan fruta eta barazkiak saltzen duten postuen artean ere egiten dute lehiaketarik eta lau aipamenduetatik hiru eskualdekoak dira. Lehe- na Baliarraingo Gorostartzuko Maria Jesus Mujikari eman zioten, bigarrena, aldiz, ez zen Tolosaldekoa, Gabiriako Bekoetxeko



Giro bikaina izan zen Euskal Jaietako azokan. ARKAITZ APALATEGI-GOIERRIKO HITZA

Anttoni Murgiondok eraman baitzuen, baina bai beste biak. Hirugarren Baliarraingo Irabiazpiko Edurne Jauregik egin zuen eta lauugarren Ibarraiko Montes Etxeak.

Beste lehiaketako bat Odolki Binkainaren Dastaketa-Lehiaketa izenekoa da, herenegun egin zuten, eta sari guztiak, lauak, Goierri- rin geratu ziren.

### Oiloak, bigantxak eta behiak

Animaliei dagokionez Euskal Oiloaren XXIX Erakusketa Lehiaketan Ave Gorria mota hegazti onenaren saria jaso zuen Albizturgo Maria Luisa Zubiarrainek eta herrikidea den Nahia Goikoetxeak ere Ave Zilarra motaren hegazti onenaren izendapena eskuratu zuten.

12-18 hilabete bitarteko zein 18-24 hilabete bitarteko bigantxen saria Abaltzisketako Emilio Gorostidik eskuratu zuen, baita 2,5 eta 3,5 urte bitarteko behiena ere. Buru Dotoreenaren saria ere Gorostidiri eman zioten.

Lehiaketarik entzutetsuena, hala ere, gaztarena izaten da. Aurtengoan Idiazabalgo J. Aranburu Elkarteak irabazi du, beste bi sari- dunak ere Goierrikoak izan zirelarik.

Ondorengo enkantean Beasain- go bi ostalaritza establezimendu aritu ziren azkena arte deman, Dolarea Hotela eta Kikara kafetegia. Dolarea Hoteleko Iban Matek eskuratu zuen gazta irabazlearen erdia azkenean, 7.200 euro ordain- duta.



Proiektuz betetako ikasturtea du aurretik Hodei Truk abesbatzak. HITZA

## Hodei Trukek ere ikasturtea hasiko du

### ERREDAKZIOA

Tolosako Hodei Truk abesbatzak ere prest du ikasturte berria eta hau proiektuz betetako dela ere aurreikusi dute.

Orain arte bezala David Azurza izango da zuzendaria eta LH 4 mailatik Batxilergora bitarteko gaztetxoek hartu dezakete parte.

Horiek horrela, abesbatzan parte hartu nahi duenak astelehene- an, hilak 13, Topic-eko laugarren solairuan 17:30etik 18:30era egin- go duten denboraldiko lehen en- tsegura azaltzeko esan dute.

Informazio gehiago nahi duenak 649-701251 telefono zenbaki- ra deitu dezake.

## Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako laguntzak

**Tolosa** » Diru-laguntzak eskuratu ahal izateko eskaera irailaren 21eko 13:00ak baino lehen egin beharko da.

### ERREDAKZIOA

Urtero bezala Tolosako Udalak Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako alorrean lan egiten duten talde eta elkarteentzako diru-laguntzak eskainiko ditu.

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 21eko 13:00etan amaituko da. Era berean, Udalak epe- kanpo aurkezten diren eskaerak edota

ezarritako eredutik kanpo daude- nak ez dituztela kontuan hartuko nabarmendu nahi izan du.

### Oinarri eta eskaera orriak

Diru-laguntza hauek arautzen dituzten oinarri eta eskaera orriak leku hauetan daude: [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) webgunean edota Udaletxeko Informazio eta Erre- gistroko bulegoan.

Udaletxera joaten denak Gizarte Zerbitzu eta Osasun sailera jobeharko du astelhe- netik ostira- lera (ostegunetan izan ezik), 10:00etan 13:00etara. 943-697460 telefono zenbakira ere deitu daiteke.

## Laburrak

### Bilboko manifestazioara joateko autobusak

**POLITIKA** • Larunbatean Adierazi EH! ekimenak deitutako manifestazioa joateko autobusak antolatu dituzte euskaldeen; Anoetan, Tolosan eta Villabonan, behinik behin, autobusetan joateko izena emateko zerrendak jarri dituzte ohiko tokietan.

### Sorosle Titulua lortzeko ikastaroa DY Aren eskutik

**TOLOSA** • DYA Gipuzkoak Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaroa eskainiko du hilaren 20tik urriaren 8a bitarte. 90 euro balio du, ikasle kopurua mugatua izango da eta izena emateko zein informazio gehiago jasotzeko 943-464622 zenbakira deitu behar da.

### Nutrizionista bat izango da Eroskin larumbata bitarte

**TOLOSA** • Tolosako Eroski saltokian nutrizionista bat izango da gaurtik larumbata bitarte elikaduraren inguruko zalantzak argitzeko, batez ere *trans* gantzak lantzen dituelarik. Edozeinek jo dezake berangana 10:00etatik 14:00etara edo 17:00etatik 20:00etara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHOZTETXEA  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Nafarroako Euskal Dantzarien Eguna ospatuko dute etzi arratsaldean

**Kultura** » Hamar dantza talde baino gehiagok hartuko dute parte ekimenean; goizaldera arte luzatuko da jaia.

## ERREDAKZIOA

Nafarroako Euskal Dantzari Eguna ospatuko da etzi Leitzan. Aurrera dantza taldeak eta Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatzen dute ekitaldia, eta herri guztira zabalduko dute arratsaldetik aurrera festa. Nafarroako 10 dantza talde baino gehiagok hartuko dute parte ekimenean.

17:00etan hasiko da jaialdia. Garai horretan, herriko auzo ezberdinetara bideratuko dira taldeak, hauetan emanaldiak eskaintzeko. Denera, bost gunetan izango dira saioak. Hauetan egin beharreko lana amaitutakoan plazan elkartuko dira denak, eta dantza ekitaldi nagusia eskainiko dute. Neskek El



Dantza taldeek, elkarrekin Leitzako ingurutxoa dantzatzeko dute etzi iluntzean. NAIARA GARCIA

Ciego dantzatzeko dute, eta mutilek, Cortes. Saioaren amaieran elkarrekin, Leitzako Ingurutxoa taularatuko dute. Gainera, aipatzekoa da, azken hau prestatzeko,

abuztuaren 28an tradizio handiko dantza honen inguruko ikastaro bat egin zutela jaialdiko parte-hartzaileek. Euskal Dantzari Eguna ospatze-

ko bi egun falta direnean, hamaika taldek baieztatu dute beraien parte-hartzea. Honenbestez, beste zenbait gehiago ere izan daitezke. Dantza emanaldiak amaituta,

## » NAFARROAKO EUSKAL DANTZARIEN EGUNA

### Irailak 11, larunbata

■ **17:00 - 18:00.** Herriko gune ezberdinetan dantza emanaldiak: Amazabal auzoan, Patxi Arrazola auzoan, San Jose plazan, Santimarra auzoan eta Manuel Lasarte auzoan.

■ **Ondoren.** Dantza taldeen kalejira.

■ **19:00.** Ekitaldi nagusia herriko plazan.

■ **22:00.** Aferria herriko plazan.

■ **Ondoren.** Erromeria.

### Parte-hartzaileak

■ **Ardantzeta (Noain).**

■ **Oberena (Iruñea).**

■ **Basakaitz.**

■ **Mikelatz.**

■ **Txori-zuri (Berriozar).**

■ **Iruña taldea (Iruñea).**

■ **Harizti (Barañain).**

■ **Orritz.**

■ **Amaiur (Uhartes).**

■ **Aoiz (Aoiz).**

■ **Aurrera (Leitza).**

afaria izango da 22:00etan. Menua ondorengo izango da: entsalada, paella eta tarta izoztua. Eguna borobiltzeko, erromeria izango da.

# Ekitaldi ugari Bizi-Nahi elkarteko jaietan



Urteroko moduan txupinazoarekin hasiko dituzte jaiak. R. CALVO

## ERREDAKZIOA

Aurtengoan ere jaiak antolatu ditu Ibarako Bizi-Nahi jubilatua eta pentsiodunen elkarteak. Hilaren 16an, osteguna, botako dute txupinazoa eta igandean, hilak 19, amai-

tuko dute. Tartean, beti bezala, ekitaldi ugari izango dituzte, mahaia- ren bueltan egitekoak gehienak, nahiz eta ostiralean ibilaldi neur- tua ere egingo duten 09:30etik aurrera.

## » EGITARAUA

### Irailak 16, osteguna

- **12:00.** Ikurrina altxatzea eta txupinazoa. Ondoren, hamaiketakoa.
- **16:00.** Mus, tute, eskoba eta puntu txapelketa azkarra.
- **20:00.** Bazkideentzat luntxa.

### Irailak 17, ostirala

- **09:30.** Ibilaldi neurtua. Amaitzerakoan hamaiketakoa.
- **20:00.** Zuzendaritza batzordeko kideek prestatutako eta zerbitzatutako afaria elkartearen aretoan (joan nahi duenak elkartearen bulegoan eman behar du izena).
- **Afalostean** dantzaldia.

### Irailak 18, larunbata

- **11:30.** Bikote mistoez osaturiko toka txapelketa. Ondoren, bertaratutako guztientzat Ibarako tomate eta piparrak izango dira.
- **16:30-19:30.** Bingoa klubeko arteoan (sari bereziak izango dira).

### Irailak 19, igandea

- **09:00.** Diana.
- **10:30.** Hildako bazkide guztien aldeko meza herriko elizan.
- **14:00.** Bazkideen bazkaria Belabieta Kiroldelgian. Oparien zozketa eta dantzaldia ere izango dira.
- **19:30.** Jaien amaiera.

**Irudikatu mundua BERRIArekin**



Egin harpidedun eta jaso  
**ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**

**Ezaugarriak:**

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berresleua ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argiak hantzez
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



**Ezaugarriak:**  
samsung LE 32C450

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, iria D/Net+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztien lotzeko.

Urriaren 15ean,  
**telebista hau zotz egingo dugu**  
BERRIAren harpidedunen artean,  
Elektraren eskutik.



**elektra**  
www.elekttagailuak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info      aukerazazu**BIZIEUSKARAZ** **berria**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Galtzaundik bultzaturiko irakurle taldearen tertulian gonbidatu berezia izango dute. Udaran *Bilbao-New York-Bilbao* eleberria irakurtzeko konpromisoa hartu zuten, eta horren baitan Kirmen Uribe izango da gaur arratsaldean Kultur Etxeko areto nagusian, 19:30etik aurrera.  
■ **Tolosa.** Extremadurako Astea: 19:00etan *Nork daki gehien Extremaduraren inguruan?* lehiaketa; 19:30ean Extremadurako ohiko jakien lehiaketa eta dastaketa (mamiak, patata tortilla, caldereta, pistoa, Extremadurako gazpatxo eta piper entsalada). Tolosako hainbat elkarteetako bazkidez osaturiko epaimahaiak erabakiko dituz plater sarituak.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Kubako haurren margo lanak daude Lanbroa tabernan ikusgai, Cuba y palante elkartearen ekimenez. Hilabete osoan egongo dira bertan.  
■ **Tolosa.** Eurne Pasabani buruzko erakusketa Aranburu jauregian: materiala, argazki, irudi eta hurrek egindako marrazkiak ikus daitezke, besteak beste. Igandera arte egongo da ikusgai.

### Ikuskizunak

■ **Tolosa.** *Ipuinen ballet handia* dantza ikuskizuna eskainiko du Lviv-eko Opera Antzokiko Balet Nazionalak Leidor aretoan, 20:30etik aurrera.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.  
■ **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Aralarko artzain berezia



### LIZARTZA

XII. Hitza Argazki Lehiaketarako argazki hauxe bidali digu Antton Balerdik: «Aralarren, lrumugarrietako bidean ateratako argazkia bidaltzen dizuet: *artzaina* artaldea kontrolatzen».

ANTTON BALERDI GARMENDIA

## A Agurrak



### Zorionak!

**Intza Jauregi Mujika.**

Urtebete abuztuaren 28an. Iazko abuztuan a ze oparia! Intza txikiak zigun / ekarri afora / zu hazten ikustea / da gure saria; / harrotasunez zaigu / pozten arpegia. Familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

argazki lehiaketa

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!**

**NORA BIDALI?**

argazkiak@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikora  
Irailak 30 arte

**HITZA** udarako argazki lehiaketa

**1. Saria**

**2. Saria**

**3. Saria**

Parte-hartzaileak HITZAko...